

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA INGURUMENA ETA ESPAZIO PUBLIKOA

Hasierako onespina ematea Gasteizko udalerriko soinu-giroa hobetzeko ekintza-planari (2019-2023)

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko apirilaren 17an egindako bilkura berezian:

“Lehenengoa. Hasierako onespina ematea Gasteizko udalerriko soinu-giroa hobetzeko ekintza-planari (2019-2023).

Bigarrena. Soinu-sorguneen titular diren pertsona edo erakundeei eta tartean diren gainerrako administrazioei kontsulta egitea, dagokion txostena egin dezaten.

Hirugarrena. Plana jendaurrean jartzea, hilabeteko eperako, erabaki hau ALHAOn eta EHAAn argitaratuz.

Erabaki honen kontra ezin da errekurtsorik jarri, izapide-egintza baita, ez baitakar gaiaren muinaren gaineko erabakirik ez zuzenean ez zeharka, ez baitu ezartzen prozedura jarraitzeko ezintasunik eta ez baitakar ez babesgabetasunik ez interes legitimoen kalte konponezinik.”

Gai honi buruzko dosierra kontsultatu ahal izango da epe horretan, Udalaren bulego teknikoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea), astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 14:00etara. Halaber, ekintza-plana Udalaren webgunean dago ikusgai, herritar guztien eskura www.vitoria-gasteiz.org.

Beraz, jendaurrean jarriko da, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 13an

Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren administrazio-burua
EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ